

MARTXOAK 8 ADIERAZPENA

Martxoaren 8tik 8ra, pertsona guztien arteko berdintasun errealaren beharra aldarrikatzen dugu, sexua edozein dela ere, askatasunaren garrantzia, rolak gainditu eta pertsonen bizitza aldatzen duena, gizarte bat bidezkoago bihurtuz. Mugimendu feministaren sorreraz ari gara, baita bere bizitzarekin ezagutzen dugun historia eraiki zuten pertsonen ere, iraganean geldituta jarraitzen duena, aske izaten ausartzen ez garelako.

Bakerako hezten dugu, eta, hala ere, ez dakigu hura babesten; rolak bereganatu eta onartzen ditugu, justuak diren zalantzan jarri gabe.

Gure Elkargo Profesionalean genero-ikuspegia txertatu behar dugu. Ezin dugu ahaztu, halaber, aurreiritzirik gabeko gizarte bat eraikitzeko, pertsonen laguntzeko eta gizarte-aldaketak sortzeko prestatu gintuztela. Eredu patriarkala aldatzeko, gizarte-injustiziaren sustraiak ezabatu eta berdintasuna sortu behar da. Gai izan gaitezen rol-bereizketarik gabeko eta aniztasunarekiko errespetuzko gizarte bat irudikatzen, bigarren mailako pertsonarik ez dagoela onartuz eta erabakitzeko eskubidea ez dela sexuaren arabera baldintzatu behar.

Ez dugu onartu behar pertsona bakar bat ere ez egotea sexuagatik diskriminatua, bere borondatearen kontra ezkontzera behartua, saldua, eraila edo pobreziak emakume-aurpegia izatea. Ereiteko garaia da, horrela bakarrik uzta dezakegu. Berdintasuna ez da askatasunik gabe existitzen. Berdintasuna ezinbesteko baldintza da bizikidetzaren onateko.

Emakumeok ESKUBIDEA dugu:

- Justifikatu behar izan gabe IZATEKO
- Toki, ordu edo konpainiaren menpe izan gabe EGOTEKO
- Espazio publikoan EGOTEKO
- Munduan zehar beldurrik gabe IBILTZEKO
- Baldintza berdinetan LAN EGITEKO
- Aukera-berdintasuna ESKATZEKO
- Errepresaliarik gabe ADIERAZTEKO
- IRITZIA EMAN eta gure iritzia ERRESPETATZEKO
- PARTE HARTZEKO
- Babesgabetasun Institutuzionalaren aurrean BABESA IZATEKO

Emakumeok honako BETEBEHARRAK ditugu:

- Berdintasunezko gizartea, bidezkoa eta justua ERAIKI
- Berdintasunean eta tratu onean HEZI
- Gure gazteak ZAINDU eta haien bidean lagundu
- Indarkeria erazteko balio positiboak TRANSMITITU
- Berdintasunezko lan-tratua ESKATU
- Zaintzen bidezko banaketa LORTU
- Gure eskubideak babesten dituzten legeak BETEARAZI
- Nork bere burua ZAINTZA
- Geure burua MAITE

Gure helburua, desberdintasuna ezabatzea da, eta Gizarte Hezkuntza, gure tresna.

Gizarte Hezkuntza edo feminista da edo ez da Gizarte Hezkuntza.

#GizarteHezkuntzaFEMINISMOAda

CGCEES-eko GENERO ETA ANIZTASUN BATZORDEA

2022ko martxoak 8